



## 2014KO IRAILAREN 5EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko irailaren bostean, goizeko bederatzietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta nazio Estensoro Eskisabel.

Haizea Mendia Iztueta eta Maialen Aldasoro Aranburu zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

### I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2014ko uztailaren 18an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

### II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 62 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMASEI MILA ETA BERROGEITA HAMASEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (36.056,76 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

### III.- EUSKARA ETA HEZKUNTZAKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara eta Hezkuntza Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako akordioak hartzen ditu:

San Benito Ikastola Kooperatiba Elkartea.- San Benito Kooperatiba Elkartearekin mantentimendu eta jardueren finantzaketarako 2014rako hitzartutako hitzarmenean, jardueretarako 22.660 € dirulaguntza ematea aurreikusten da. Hau honela, orain dirulaguntzaren erdia ordaintzea erabakitzen da, hau da, HAMAIIKA MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAR (11.330 €) EURO.

- Goierriko Euskal Eskola.- Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteari, Mintzalagun proiektuarengatik, 2014ko urtarriletik ekainera bitarteko eperako BOST MILA (5.000 €) EUROko dirulaguntza ematea.

### IV.- KOMUNIKAZIOKO DIRULAGUNTZAK .-

Komunikazio Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrek honako akordioak hartzen ditu:



- Goierriko Hedabideak S.L.- Goiberri aldizkariaren argitalpenagatik, udal honek bere 2014ko aurrekontuan aurreikusita daukan dirulaguntzaren erdia ordaintzea, hau da, MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (1.350 €) ordaintzea.
- Goierriko Hedabideak S.L.- Goierriko Hitzaren argitalpenagatik, udal honek bere 2014ko aurrekontuan aurreikusita daukan dirulaguntzaren erdia ordaintzea, hau da, BOST MILA ETA LAUEHUN (5.400 €) ordaintzea.
- Goierriko Ikuskari S.L.- Goierriko udal eta GITBren artean (Goierriko Irrati Telebista) izenpetutako hitzarmenaren arabera, Goierriko Ikuskari S.L.k eskualderako ematen duen komunikazio zerbitzua finantzatzeko Goierriko udalek urtean biztanleko 2 €rekin lagunduko dute. Hori horrela izanda, orain urteko dirulaguntzaren erdia ematea onartzen da, hau da, BOST MILA ETA LAUEHUN (5.400 €) EURO ematea.

#### V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, goizeko bederatziak eta hogeita lau direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

